



GOMENDIOAK KIRURGIA TXIKI BAT EGIN AURRETIK

- Gogoratu ebakuntzaren egunean hartu behar duzun medikazioa apuntatuta ekartzeaz.
- Gomendatzen dizugu etorri baino lehen dutxatzea, hurrengo 24-48 ordutan ezingo duzulako zauria busti.
- Gosaldu, bazkaldu eta hamaiketako egin dezakezu, egin ohi duzun bezala.
- Ez ekarri erlojurik, eskumuturrik, lepokorik... Ebakuntzaren aurretik objektu metaliko guztiak kendu beharko dituzu eta galdu ahal dira. Ez gara horien arduradun izango.
- Ahal baduzu, ebakuntzaren egunean norbaitekin etorri, lasaiago egongo zara eta laguntza izango duzu bendajeren bat baduzu.
- Ez eraman makillajerik eta ezta azazkal-lakarik ere.